



EBAZPENA

376/2023/DL espedientea ikusi da, Durangon merkataritza eta ostalaritza-jarduera sustatzeko erosketa bonuak diruz laguntzeko 2023eko bigarren deialdiari buruzkoa.

Ikusi da arloaren txostena, deialdiaren datak zuzentzeko arrazoen berri ematen duena. Arrazoi horiek oinarri arautzaileak honela idaztea eragin dute:

Durangoko merkataritza-, zerbitzu- eta ostalaritza-jarduera sustatzeko erosketa-bonuak diruz laguntzeko 2023eko bigarren deialdiaren oinarri arautzaileak

Udalerriko merkataritza-, zerbitzu- eta ostalaritza-jarduera berreskuratzen laguntzeko, Durangoko Udalak, eskura dauden baliabideak erabilita, diru-laguntzen gaineko oinarri batzuk prestatu ditu, Hori guztia, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.25 artikulua tokiko garapen ekonomiko eta soziala eta tokiko enplegu-planak edo -politikak" egiteko ematen dion eskumen propioa erabiliz.

Helburu horrekin, aurtan, erosketa-bonuak diruz laguntzeko bi deialdi planifikatu dira, eta horrela, Durangoko merkataritza eta ostalaritza sustatzen lagundu da, honako hau bigarren deialdia izanik.

1. Helburua

Oinarri hauen helburua da Durangoko merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduetan erositako produktuak eta zerbitzuak erosteko "Durango Bona" bonuak

RESOLUCIÓN

Visto el expediente **376/2022/DL**, relativo a la segunda convocatoria de 2023 para la subvención de bonos de compra con el fin de fomentar la actividad comercial y hostelera en Durango.

Visto el informe del área informando de las causas de corrección de las fechas de la convocatoria, que motivan a redactar las bases reguladoras como sigue:


Bases reguladoras de la segunda convocatoria de 2023 para la subvención de bonos de compra con el fin de fomentar la actividad comercial, de servicios y hostelera en Durango

En aras a contribuir a la recuperación de la actividad comercial, de servicios y hostelera en el municipio, el Ayuntamiento de Durango, haciendo uso de la competencia de "desarrollo local económico y social y políticas o planes locales de empleo" que la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi le atribuye como propia en su artículo 17.1.25, ha elaborado unas bases de subvenciones para, dentro de los recursos disponibles, contribuir a la recuperación económica y comercial del municipio.

Con este fin, a lo largo de este año, se han planificado dos convocatorias para la subvención de bonos de compra, contribuyendo así al fomento de la actividad comercial y hostelera en Durango, siendo esta la segunda convocatoria del año.

1.- Objeto

Es objeto de las presentes bases regular las condiciones de la subvención de los bonos "Bono Durango" destinadas a la compra de productos y servicios adquiridos en



diruz laguntzeko baldintzak arautzea.

2. Aurrekontu erabilgarria

Deialdi honetan gehienez 53.400 euro banatuko dira. Gastu hori indarrean dagoen udal-aurrekontuko 81.4314.48101 partidaren kargura egingo da, partida hori deialdi honen xede diren laguntzak finantzatzera bideratuta egonik.

3. Onuradunak.

Laguntza hauen onuraduntzat joko dira deialdiari atxikitako entitatearen bezeroak izanda, saltoki horietan eskura jarritako erosketa-bonuak erosten dituzten pertsona fisikoak.

Bonuak adinez nagusiak direnek bakarrik erosi ahal izango dituzte.

Ezingo dira oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradun izan dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak.

Onuradunak ez daudela onuradun izateko debekuetan ofizioz egiaztatuko da bonuak eskuratzen diren unean.

4. Diru-laguntza ordaintzea.

Bonu bakoitzaren zenbatekoa, hasiera batean, atxikitako entitateek ordainduko diete beren establezimenduetan bonuak trukatzeko dituzten bezeroei.

Ondoren, atxikitako entitate bakoitzak justifikatu ondoren, Durangoko Udalak erakunde horiei dagokien zenbatekoa itzultzeko izapideak egingo ditu, 11. oinarrian aurreikusitako baldintzetan behar bezala trukatu eta justifikatutako bonu-kopuruaren

establecimientos comerciales y hosteleros radicados en Durango.

2. Presupuesto disponible

La cantidad máxima a distribuir en esta convocatoria será de 53.400 euros, realizándose el gasto con cargo a la partida 81.4314.48101 del presupuesto municipal vigente, destinado a la financiación de las ayudas objeto de la presente convocatoria.

3. Personas beneficiarias.

Se consideran personas beneficiarias de estas ayudas las personas físicas que, en calidad de clientes de las entidades adheridas a la convocatoria, adquieran los bonos de compra puestos a su disposición en dichos comercios.

Los bonos únicamente podrán ser adquiridos por personas mayores de edad.

No podrán obtener la condición de beneficiarias de las subvenciones reguladas en estas bases las personas en quienes concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 13 de Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de subvenciones.

La comprobación de no estar incurso las personas beneficiarias en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria, se realizará de oficio en el momento de la adquisición de los bonos.

4. Pago de la subvención.

El pago del importe de la subvención se realizará en un primer momento por las entidades adheridas a cada uno de las/os clientes que canjeen los bonos en sus establecimientos.

Con posterioridad, previa justificación por cada una de las entidades adheridas, el Ayuntamiento de Durango tramitará el reintegro a éstas de la cuantía que corresponda en función del número de



arabera.

5. Diruz lagunduko diren gastuak.

Oinarri hauetan aurreikusitako ondorioetarako, diruz laguntzeko gastutzat hartuko dira honako betekizun guzti hauek betetzen dituzten ondasunen salerosketak:

Zenbatekoa.- 10 euroren truke 15 euroko bonu bat erosi ahal izango da. Pertsona bakoitzak gehienez 6 bonu erosi ahal izango ditu.

Non.- Kanpainari atxikitako eta Durangon kokatutako merkataritza-establezimenduetan, ostalaritza-establezimenduetan eta zerbitzu-establezimenduetan egindako erosketak, baldin eta oinarri hauek baldintzak betetzen badituzte.

Noiz.- BAO on argitaratu eta hurrengo egunetik 2023ko abenduaren 3ra arte egindako erosketak.

6. Bonuak

6.1 Bonuaren izena.-

Durango bonua

6.2 Kopurua

10.680 bonu eskainiko dira.

6.3 Zenbatekoa eta balioa

Erositako bonu bakoitzaren balioa 15 eurokoa izango da. Udalaren dirulaguntza 5 eurokoa da bonu bakoitzeko. Bonoa erosten dutenek 10 euro ordainduko dituzte.

bonos correctamente canjeados y justificados en los términos previstos en la base 11.

5. Gastos subvencionables.

Se consideran gastos subvencionables, a los efectos previstos en estas bases, las compras que de forma acumulativa cumplan los siguientes requisitos:

Importe.- Por un importe de 10 euros se podrá comprar un bono de 15 euros. Cada persona podrá adquirir un máximo de 6 bonos.

Dónde.- Compras realizadas en establecimientos comerciales, hosteleros y de servicios, adheridos a la campaña y radicados en Durango que cumplan con los requisitos de estas bases.

Cuándo.- compras realizadas desde el día siguiente a la publicación en el BOB hasta el 3 de diciembre de 2023.

6. Bonos

6.1 Nombre del bono


Bono Durango

6.2 Cuántos

Se ofertarán 10.680 bonos.

6.3 Importe y Valor

El valor de cada bono adquirido será de 15 euros. La cuantía de subvención municipal asciende a 5 euros por bono. Las personas que adquieren el bono abonan 10 euros.



Gehienez 6 bonu erosi ahal izango dira NAN bakoitzeko.

6.4 Bonuak eskuratzeko epea eta horien indarraldia.

Bonuak erosi eta trukatu ahal izango dira BAOOn argitaratu eta hurrengo egunetik 2023ko abenduaren 3ra arte, biak barne.

Gastua 2023ko abenduaren 3era arte egin beharko da, eta ez da diruz lagunduko egun horretatik aurrera egindako erosketarik. Datari dagokionez, dagokion fakturan jasotakoa hartuko da kontuan, eta ez da geroagoko fakturarik onartuko.

Abenduaren 3a igarotakoan, bonuak iraungitzat joko dira, eta ezin izango dira inongo saltokitan trukatu ezta ezin ezin izango dira erabili geroko kanpainetan.

Trukatzen ez diren bonoen zenbatekoa ez da inolaz ere itzuliko.

6.5 Zelan erabili bonuak

15 euroko bonu bakoitza faktura edo erosketatik bakarrean erabili ahalko da. Gehienez, 15 euroko 2 bonu metatu daitezke faktura edo erosketatik bakoitzean, betiere erosketaren zenbatekoa erabilitako bonuen berdina edo handiago bada.

6.6. Bonuak saltzeko lekua

BAOOn argitaratu eta hurrengo egunetik, herritarrek bonuak digitalki erosi ahal izango dituzte www.bonoo.durango.eus web-plataformaren bidez, baita herritarren kutxazainen terminaletan ere.

Turismo Bulegoa (Kurutzia, 38)

Asteartetik igandera, 10:00etatik 14:30era

Ostegun eta ostiraletan, 10:00etatik 14:30era

Se podrá adquirir un máximo de 6 bonos por DNI.

6.4 Plazo de adquisición y vigencia de los bonos.

La adquisición y canjeo de los bonos se podrá realizar desde el día siguiente al de la publicación en el BOB hasta el 3 de diciembre de 2023, ambos incluidos.

El gasto deberá haberse efectuado con fecha límite el 3 de diciembre de 2023, no subvencionándose compras efectuadas con posterioridad a dicha fecha. En relación a la fecha se estará a lo consignado en la factura correspondiente, no admitiéndose facturas posteriores.

Una vez transcurrido el 3 de diciembre los bonos se considerarán caducados y no podrán ser canjeados en ningún comercio ni tendrán validez para campañas ulteriores.

En ningún caso se devolverá el importe de los bonos no canjeados.

6.5. Cómo utilizar los bonos

Cada bono de 15 euros solo podrá ser utilizado en una única factura o ticket de compra. Podrán acumularse hasta un máximo 2 bonos de 15 euros en una misma factura o ticket de compra, siempre y cuando la cuantía de la compra sea igual o superior a los bonos utilizados.


6.6 Lugar de venta de los bonos

Desde el día siguiente al de la publicación en el BOB, la ciudadanía podrá adquirir los bonos digitalmente a través de la plataforma web www.bonoo.durango.eus, así como en los terminales e cajero ciudadano situados en:

Oficina de Turismo (Kurutzia, 38)

De martes a domingo, de 10:00 a 14:30

Jueves y viernes, de 10:00 a 14:30 y de



eta 16:00etatik 18:30era

Astelehenak itxita.

HAZ (Barrenkale 17)

Astelehenetik ostegunera, 08:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

Ostiraletan, 08:00etatik 14:00etara.

6.6.Ordaintzeko modua

Ordaintzeko modu bakarra banku-txartela izango da.

6.7 Bonua nola erabili

Bonu bakoitza barra-kode bati lotuta egongo da, eta kode hori erabilera bakarrekoa izango da, gero establezimendu atxikietan irakurri eta balioztatzeko.

Erabiltzaileek formatu digitalean jasoko dute bonua (edo bonuak), posta elektronikoz.

Webgunetik, posta elektronikoko bidez berreskuratu ahal izango dira oraindik trukatu edo iraungi gabeko bonuak.

Erosketa gutxienez 15 eurokoa izango da.

15 euroko bonu bakoitza behin bakarrik erabili ahal izango da.

Gehienez 15 euroko 2 bonu metatu ahal izango dira faktura edo erosketa-tiketa berean. Kasu horretan, gutxieneko zenbatekoa 30 eurokoa izango da, erositako ondasunen kopurua edozein dela ere.

Erosketaren fakturaren edo tiketaren zenbatekoa, nolanahi ere, erabilitako bonuen zenbatekoaren berdina edo handiagoa izango da.

6.4 oinarrian jartzen duen moduan, bonuak trukatzeko azken eguna 2023ko abenduaren 3a izango da; une horretatik aurrera, bonuak iraungitzat joko dira, eta ezin izango dira edozein saltokitan trukatu, eta ez dute baliorik

16:00 a 18:30.

Lunes cerrado.

SAC (Barrenkale 17)

De lunes a jueves, de 08:00 a 14:00 y de 15:00 a 19:00

Ostiraletan, de 08:00 a 14:00

6.6 Medio de pago

El único medio de pago admitido será la tarjeta bancaria.

6.7 Cómo utilizar el bono

Cada bono estará asociado a un código de barras de un único uso para su posterior lectura y validación en los establecimientos adheridos.

Las personas usuarias recibirán el bono/s en formato digital, por correo electrónico.

Desde la web, se podrán recuperar vía email los bonos aún no canjeados o no caducados.


La compra realizada será de un importe mínimo de 15 euros.

Cada bono de 15 euros solo podrá ser utilizado una vez.

Podrán acumularse hasta un máximo 2 bonos de 15 euros en una misma factura o ticket de compra, en cuyo caso el importe mínimo será de 30 euros, independientemente del número de bienes adquirido.

La cuantía de la factura o ticket de la compra será, en cualquier caso, igual o superior al importe de los bonos utilizados.

Tal y como se indica en la base 6.4, la fecha límite para el canje de los bonos será el 3 de diciembre de 2023, momento a partir del cual, los bonos se considerarán caducados y no podrán ser canjeados en ningún



izango geroko kanpainetarako.

6.8 Itzulketak

Bonuak erosi eta trukatu ahal izango dira BAO n argitaratu eta hurrengo egunetik 2023ko abenduaren 3era arte, biak barne.

Epe hori igarotakoan, bonuak iraungitzat joko dira, eta ezingo dira saltokietan trukatu.

Ez da bonuen itzulketarik onartuko. Ez da trukatu gabeko bonuen edo iraungitako bonuen zenbatekoa itzuliko. Behin bonua erosketa batean trukatuta, ezingo da itzuli.

Gastatu gabeko zenbatekoa ez da itzuliko.

7. Atxikitutako entitate laguntzaileak

Atxikitako entitatetzat hartu ahalko dira merkataritza, ostalaritza edota zerbitzu-establezimenduek baldin eta gehienez 10 langile badituzte, Durangon baldin badaude, eta irekiera baimena badute.

Atxikitako entitate horiek entitate laguntzailetzat hartuko dira, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 12.artikuluaren lehen paragrafoan ezarritakoaren arabera. Horrela, lege-arau horretan aurreikusitako araubide juridikoa aplikatuko zaie, hau da, dirulaguntzen kudeaketan laguntzen duten entitateei aplikatzen zaiena.

8. Atxikitako entitate laguntzaile izaera lortzeko baldintzak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

8.1. Atxikitako entitate laguntzaileek dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

comercio ni tendrán validez para campañas ulteriores.

6.8 Devoluciones

La adquisición y canjeo de los bonos se podrá realizar desde el día siguiente al de publicación en el BOB y hasta el 3 de diciembre de 2023, ambos incluidos.

Una vez transcurrido este periodo los bonos se entenderán caducados y no podrán ser canjeados en ningún comercio.

No se admiten devoluciones de los bonos, no se reembolsará el importe de los bonos no canjeados o de aquellos que hayan caducado. Una vez se haya canjeado el bono en una compra, no se podrá devolver.

No se reembolsará el importe no gastado.


7. Entidades colaboradoras adheridas

Podrán tener la consideración de entidades adheridas aquellos establecimientos comerciales, hosteleros o de servicios que, teniendo un máximo de 10 trabajadoras/es y estando ubicados en Durango, cuenten con licencia de apertura.

Las entidades adheridas tendrán la consideración de entidades colaboradoras, de conformidad con lo establecido en el primer apartado del artículo 12 de la Ley General de Subvenciones, siéndoles de aplicación el régimen jurídico previsto en dicha norma legal para las entidades colaboradoras en la gestión de subvenciones.

8. Requisitos y documentación a aportar para obtener la condición de entidad colaboradora adherida.

8.1. Las entidades adheridas deberán cumplir todos y cada uno de los requisitos establecidos en el artículo 13 de la Ley General de Subvenciones.



8.2. Durango 2023 Bonuaren aurreko kanpainei atxikitako entitateek, erakunde laguntzaile izateko baldintzak betetzen badituzte, ez dute atxikitzeko eskaerarik aurkeztu beharko, automatikoki alta emango baitzaie kanpaina honetan eta 2024ko ondorengo kanpainetan.

8.3. Hasierako atxikipen-eskaera egin zuen pertsonaren egitekoa izango da Durangoko Udalari berariaz jakinaraztea establezimendu edo merkataritza-jarduerari buruz datuetan gertatutako edozein aldaketa, bereziki negozioaren titulartasunari, banku-datuei eta lokalaren eta/edo eskatzailearen harremanetarako datuei dagokienez, eta, hala badagokio, etorkizuneko kanpainetan baja emateko eskaera izapidetzea.

8.4. Atxikimendu berriak eskatzeko, pertsona edo entitate eskatzaileek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskabidearen inprimaki normalizatua (l. eranskina).

b) Pertsona edo entitate eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiriaren fotokopia (IFZ, eraketa-eskriturak, dagokion erregistroak emandako ziurtagiria, etab).

c) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena. Aldi berean entitate laguntzaile izaera eragozteko kausarik ez dagoela egiaztatzen duten agiriak, ziurtagiriak edo, hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpena.

d) Bere izenean dagoen kontu korrante baten titulartasuna ziurtatzeko agiria (hirugarrenaren fitxa).

Dokumentu hori (hirugarrenaren fitxa),

8.2. Aquellas entidades adheridas a anteriores campañas de Bono Durango 2023 y que cumplan los requisitos para obtener la condición de entidad colaboradora, no deberán presentar su solicitud de adhesión ya que se les dará de alta de manera automática en la presente campaña así como en las campañas de 2024.

8.3. Será cometido de la persona que realizó la solicitud de adhesión inicial, informar expresamente al Ayuntamiento de Durango sobre cualquier variación de datos que haya podido producirse respecto al establecimiento o actividad comercial, especialmente en lo referente a la titularidad del negocio, datos bancarios y datos de contacto del local y/o del solicitante, así como, en su caso, de tramitar la solicitud de baja de futuras campañas.


8.4. Para solicitar nuevas adhesiones, las personas o entidades solicitantes deberán aportar los siguientes documentos:

a) Impreso normalizado de solicitud, que se acompaña como Anexo I.

b) Fotocopia del documento acreditativo de la personalidad de la persona o entidad solicitante (NIF, escrituras de constitución, certificado emitido por el registro correspondiente, etc.).

c) Declaración responsable de encontrarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, así como de no concurrir en la persona/entidad solicitante ninguna causa impositiva de la condición de entidad colaboradora.

d) Documento que certifique la titularidad de una cuenta corriente a su nombre (ficha de tercero).



aldaketarik egon bada, aurreko kanpainetan atxikitako erakundeek ere aurkeztu beharko dute.

8.5.. IFK bakarra duten baina Durangon hainbat establezimendu duten negozioek establezimendu guzti-guztiak atxiki ahal izango dituzte, banan-banan.

9. Atxikitze-eskabideak aurkezteko epea eta modua.

9.1.- Atxiki berrientzako eskabideak aurkezteko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2023ko abenduaren 3an amaituko da.

9.2.- Bat egiteko eskariak I Eranskinen ere duan egin behar dira. Eredua eskuragarri dago udaleko webean eta sede elektronikoan.

Udalak eredu hori telematikoki eman ahal izango die hala eskatzen duten pertsona guztiei sede elektronikoan.

Salbuespen gisa, egoitza elektronikora sartzeko aukerarik ez dutenek, HAZen bulegoetan aurkeztu ahal izango dute eskabidea (Barrenkale, 17).

9.3.- Eskaeran berariaz adieraziko da zein den jakinarazpenetarako helbidea.

Eskatzaileak berariaz jakinarazi beharko dio Durangoko Udalari gerta daitekeen edozein datu-aldaketa, bereziki eskatzailearen helbideari eta banku datuei dagokienez.

9.4. Eskabide-orri normalizatuekin batera, pertsona edo entitate eskatzaileek deialdian

Este documento (ficha de tercero) también deben presentarlo en caso de que haya habido cambios, las entidades previamente adheridas.

8.5. En caso de los negocios con un único CIF que dispongan de varios establecimientos en Durango podrán adherirse todos y cada uno de ellos de manera individual.

9. Plazo y forma de presentación de las solicitudes de adhesión.

9.1.- El plazo de presentación de las nuevas solicitudes de adhesión comenzará al día siguiente al de publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia y finalizará el 3 de diciembre de 2023.

9.2.- Las solicitudes de adhesión habrán de formularse en el modelo que se adjunta como Anexo I, disponible en la web municipal y en la sede electrónica.


El Ayuntamiento podrá facilitar dicho modelo de forma telemática a todas las personas que así lo requieran.

Excepcionalmente, para aquellas personas que no tengan acceso a la sede electrónica podrán presentar la solicitud en las oficinas del SAC (Barrenkale, 17).

9.3.- En la solicitud se hará constar expresamente el domicilio que se señale a efectos de notificaciones.

Será cometido de la persona solicitante informar expresamente al Ayuntamiento de Durango de cualquier variación de datos que haya podido producirse, especialmente en lo referente al domicilio del solicitante y a los datos bancarios.

9.4. Junto con el impreso normalizado de solicitud, las personas o entidades



zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte.

10. Eskabidea zuzentzea.

Eskabidean edo eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsen bat baldin badago edo osatu barik badago, bost egun balioduneko gehienezko epea emango zaie entitate interesdunei antzemandako akatsak zuzentzeko. Epe hori pasatuta, eskabidean atzera egin dutela ulertuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera ebazpena eman ondoren.

11. Atxikitako erakundeek nola jardun behar duten

Atxikitako erakunde laguntzaileek Bono Durango aplikazioa gailu mugikor batean instalatu beharko dute kanpaina honetan parte hartu ahal izateko eta beraien establezimenduan erabilgarri izateko, kanpaina hasten denetik aurrera.

APPrako sarbidea emandako posta elektronikoaren bidez izango da, baita sartzeko pasahitza ere.

Pasahitza galduz gero, saltokiak APParen bidez berreskuratu ahal izango du.

Udalak kanpainan parte hartzea baliozkotzen duenean, APPa aktibo egongo da establezimendurako.

Atxikitako erakundeek agerian jarri beharko dute kanpaina identifikatzeko kartela.

Kanpainan parte hartzen duten saltokien zerrenda www.bonoa.durango.eus webgunean argitaratuko da. Zerrenda hori eguneratu egingo da establezimendu berriak

solicitantes deberán aportar los documentos que se detallan en la convocatoria.

10. Subsanación de la solicitud.

Cuando la instancia de solicitud o la documentación que debe acompañarla adolecieran de algún error o fueran incompletas, se otorgará a las entidades interesadas un plazo máximo de cinco días hábiles para subsanar los defectos detectados, transcurrido el cual sin que lo hubieran hecho, se les tendrá por desistidas de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

11. Cómo deben operar las entidades adheridas

Las entidades adheridas deberán instalar la APP Bono Durango en un dispositivo móvil para poder operar en esta campaña y tenerla operativa en su establecimiento una vez iniciada la campaña.


El acceso a la APP será a través del correo electrónico facilitado así como la contraseña de acceso.

En caso de pérdida de la contraseña, el comercio podrá recuperarla a través de la APP.

La APP estará activa para el establecimiento cuando el Ayuntamiento valide su participación en la campaña.

Las entidades adheridas deberán exponer el cartel identificativo de la campaña en lugar visible.

El listado de los comercios participantes en la campaña se publicará en la web www.bonoa.durango.eus. Dicho listado se irá actualizando a medida que se vayan



atxiki ahala.

12. Bonuen justifikazioa

12.1. Justifikatzeko epea

Kanpainaren azken eguna abenduaren 3a da, beraz, bonuak onartzeko azken eguna abenduaren 3a da.

Hala ere, saltokiek abenduaren 10era arte izango dute eskaneatutako bonuak berrikusteko eta falta izan zaizkien tiketak eransteke.

12.2. Nola justifikatu bonuak

Egiaztagiriak atxikitako entitate bakoitzean trukaturako bonuak eta bonu bakoitzari lotutako fakturak izango dira. Bonu bakoitzarekin batera egindako salmentaren zerga-egiaztagiria aurkeztu beharko da (faktura edo faktura sinplifikatua).

Bonuen eta horiei lotutako fakturen trukea horretarako eskuragarri dagoen Bono Durango APParen bidez baino ezin izango da egin, dirulaguntzen justifikazioan bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan ezarritakoaren arabera.

Egiaztagiriak Durango Bonua APParen bidez izapidetuko dira, honela:

Bezero batek bonua establezimenduan aurkeztu duenean, atxikitako saltokiak bonua baliozkotu eta trukaturako du Bono Durango APParen bitartez. Bonua eskaneatu egindo da, eta horri erostetaren fakturaren kopia erantsiko zaio.

adhiriendo nuevos establecimientos.

12. Justificación de los bonos

12.1-Plazo de justificación

El último día de campaña es el 3 de diciembre, por tanto la fecha límite para aceptar bonos es el 3 de diciembre.

No obstante, los comercios, hasta el 10 de diciembre, podrán revisar sus bonos escaneados y adjuntar los tickets que les hayan podido faltar.


12.2. Cómo justificar los bonos

Los justificantes consistirán en los bonos canjeados en cada entidad adherida y las facturas asociadas a cada bono. Cada bono deberá estar acompañado por el justificante fiscal de la venta desarrollada (factura o factura simplificada).

Conforme a lo establecido en la Orden EHA/2261/2007, de 17 de julio, por la que se regula el empleo de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en la justificación de las subvenciones, el canjeo de los bonos y las facturas asociadas a los mismos, únicamente se podrá realizar mediante la APP Bono Durango disponible a tal efecto.

Los justificantes se tramitarán a través de la APP Bono Durango de la siguiente manera:

En el momento en que un/a cliente presente el bono en su establecimiento, y únicamente a través de la APP Bono Durango, el comercio adherido procederá a su validación y canjeo mediante el escaneo del bono al que se le adjuntará copia de la factura de la compra realizada.



Durangoko Udalak ez ditu onartuko Bono Durango APParen bidez trukatu ez diren bonuak, ez baitira baliozkotutzat hartuko, ezta dagokion faktura lotuta ez dutenak, edo bonu eta faktura bakoitzaren arteko lotura zalantzarik gabekoa ez dutenak.

Salerosketa justifikatzeko, aipatutako 4/2013 Foru Dekretuaren 4. eta 7. artikuluen arabera jaulkitako faktura sinplifikatuak onartuko dira.

Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuan (fakturazio-betebeharrak arautzen dituen erregelamendua onartzen duena) eskatutako baldintzak derrigorrez bete beharko dira; hortaz, ez dira gastuen frogagiritzat onartuko honako datu hauek jasotzen ez dituzten fakturak:


- Zenbakia eta, hala badagokio, seriea.
- Noiz egin den.
- Faktura egin behar duenaren eta eragiketen hartzailearen izen-abizenak eta sozietatearen izen osoa.
- Europar Batasuneko edozein estatu kideko zerga-administrazio eskudunak esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia; izan ere, faktura egin behar duenak zenbaki horrekin egin beharko du eragiketa.
- Eragiketen deskribapena.
- Eragiketari aplikatutako BEZaren zerga-tasa.
- Hala badagokio, eragiten den tributuko, bereizita kontsignatu beharko dena.
- Eragiketak egin diren data.
- BEZetik salbuetsita egonez gero eragiketa salbuetsita dagoela adieraztea.

El Ayuntamiento de Durango no admitirá bonos no canjeados mediante la APP Bono Durango, ya que no tendrán la consideración de validados, ni tampoco aquellos que no tengan asociada la factura correspondiente o aquellos en los que la asociación entre cada bono y cada factura no resulte indubitada.

Se admitirán como justificación de la compraventa las facturas simplificadas emitidas en los términos de los artículos 4 y 7 del citado DF 4/2013.

No se admitirán como justificación de los gastos aquellas facturas en las que - incumpliendo los requisitos exigidos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 4/2013, de 22 de enero, por el que se aprueba el Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación- no consten los siguientes datos:

- Número y, en su caso, serie.
- La fecha de su expedición.
- Nombre y apellidos, razón o denominación social completa, tanto del obligado a expedir factura como del destinatario de las operaciones.
- Número de Identificación Fiscal atribuido por la Administración tributaria competente de cualquier Estado miembro de la Unión Europea, con el que ha realizado la operación el obligado a expedir la factura.
- Descripción de las operaciones.
- El tipo impositivo de IVA aplicado a la operación.
- La cuota tributaria que, en su caso, se repercuta, que deberá consignarse por separado.
- La fecha en que se hayan efectuado las operaciones.
- En el supuesto de exención del IVA, indicación de que la operación está



exenta.

Era berean, ez dira justifikazio-gastutzat hartuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako atxikipenen arloko zerga-araudia betetzen ez duten fakturak.

12.3. Saltoki bakoitzak onar ditzakeen bonuen gehienezko kopurua

Saltoki bakoitzeko, gehienez ere, 15 euroko 300 bonu aurkeztu ahal izango dira (4.500 €).

Establezimenduak ezin izango ditu onartu tiket/faktura bati lotutako 2 bonu baino gehiago.

Gainera, kontuan hartuko du tiketen/fakturen zenbatekoa erosketa horretarako metatutako bonuen balio osoaren berdina edo handiagoa izango dela beti.

Hau da, bonu bat jasoko balu, lotutako tiketaren/fakturaren balioa 15 euro edo gehiagokoa izango da, eta 2 bonu jasoko balitu, lotutako tiketaren/fakturaren balioa 30 euro edo gehiagokoa izango da.

13. Deialdia bideratu eta ebazteko eskumena duen organoa. Prozedura

Prozedurak eskatzen dituen erabakiak hartzeko organo eskuduna Lurralde Zinegotzigoa izango da, alkate-udalburuak 2023ko ekainaren 29ko dekretu bidez erabakitako eskuordetzeen arabera (2023ko uztailaren 19ko 139.zk BAO on argitaratua).

Asimismo, no se admitirán como gastos justificativos, aquéllas facturas que no cumplan con la Normativa Fiscal en materia de retenciones a cuenta del IRPF (Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas).

12.3. Límite de aceptación de bonos por comercio

El límite de canje de bonos por establecimiento será de 300 bonos de 15 euros (4.500 €).


El establecimiento no podrá aceptar más de 2 bonos asociados a un ticket/factura.

El establecimiento tendrá en cuenta además que el importe de los tickets/facturas siempre será igual o superior al valor total de los bonos acumulados para esa compra.

Es decir, si recibiera un bono, el valor del ticket/factura asociado será de 15 euros o más, y si recibiera 2 bonos el valor del ticket/factura asociado será de 30 euros o más.

13. Órgano competente para la instrucción y resolución de la convocatoria. Procedimiento

El órgano competente para dictar cuantos acuerdos requiera el procedimiento será de la Concejalía delegada de Territorio, en virtud de las delegaciones acordadas por la Alcaldesa-Presidenta mediante decreto de fecha 29 de junio de 2023, publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 139, de 19 de julio de 2023.



Merkataritza eta Turismo Arloak merkataritza atxikitzeko eskabideari buruz egingo duen ebaluazioarekin hasiko da instrukzio-fasea. Ebaluazio horretan egiaztatuko da pertsona/erakunde eskatzaileak erakunde laguntzaile izateko ezarritako baldintzak betetzen dituela, eta aurkeztutako dokumentazioa osorik dagoela eta zuzena dela.

Merkataritza eta Turismo Arloaren eskumena izango da, halaber, prozedurak eskatzen dituen egintza guztien instrukzioa egitea, behin-behineko ebazpen-proposamena egitea barne.

Proposamena oinarri hauetan adierazitako irizpideen arabera egingo da, eta honako hauek jasoko ditu: dirulaguntzaren onuradunen zerrenda eta bakoitzari dagokion zenbatekoa, bai eta ukatzeen arrazoi egokiak eta nahikoak ere, halakorik gertatuz gero.

Halaber, proposamenean jasoko dira, entitate laguntzaileak, behar bezala baliozkotutako bonuen kopurua eta, beraz, bakoitzari ordaindu beharreko zenbatekoa.

Merkataritza eta Turismo Arloak erakunde laguntzaileek Bono Durango APP bidez izapidetutako zenbatekoak eta egiaztagirak egiaztatu eta ebazpen-proposamenak izapidetu ondoren, atxikitako erakundeei bi epetan ordainduko zaie:

Lehenengo 3 asteetan baliozkotu eta justifikatutako bonuak kanpaina amaitu baino lehen ordainduko dira.

Lehenengo 3 asteetatik kanpaina amaitu arte baliozkotu eta justifikatutako bonuak abenduaren 31 baino lehen ordainduko dira.

La fase de instrucción se iniciará con la evaluación que realice el Área de Comercio y Turismo de la solicitud de adhesión del comercio, que consistirá en la verificación del cumplimiento de las condiciones establecidas para adquirir la condición de entidad colaboradora por parte de la persona/entidad solicitante y de que la documentación presentada se encuentra completa y es correcta.

Será también competencia del Área de Comercio y Turismo la instrucción de cuantos actos requiera el procedimiento, incluyendo la elaboración de la propuesta de resolución provisional.


La propuesta se elaborará conforme a los criterios señalados en las presentes bases, y contendrá una relación de las personas beneficiarias de la subvención y la cuantía que a cada una de ellas corresponda, así como la motivación adecuada y suficiente de las denegaciones, en el caso de que se produjeran.

La propuesta contendrá igualmente las entidades colaboradoras, el número de bonos validados correctamente y por tanto la cuantía que corresponda abonar a cada una de ellas.

Una vez el Área de Comercio y Turismo verifique los importes y justificantes tramitados por las entidades colaboradoras a través de la APP Bono Durango y tramitadas las correspondientes propuestas de resolución, el pago a las entidades adheridas se realizará en dos plazos:

Los bonos validados y justificados en las 3 primeras semanas se abonarán antes del fin de campaña.

Los bonos validados y justificados a partir de las 3 primeras semanas y hasta fin de campaña se abonarán antes del 31 de diciembre.



Ebazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Epea igarotakoan, dirulaguntzaren eskaera ezetsizat joko da berariazko ebazpenik ematen ez bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Ematen den ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Hala ere, nahi izanez gero, eta aurreko paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean.

Ebazpena udalaren www.durango.eus webgunean eta, kasuan, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratuko da, eta argitalpen horrek jakinarazpenaren ondorioak izango ditu.

Aurreko paragrafoan ezarritako epea amaitu eta ebazpenik jakinarazi edo argitaratu ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertu beharko dute entitate interesdunek, administrazio-isiltasunez.

Entitate laguntzaileen erreklamazioak ezarritako epean erantzungo dira.

El plazo máximo para resolver será de 3 meses, contado a partir del día siguiente a aquel en el que finalice el plazo de presentación de solicitudes. Transcurrido el plazo se entenderá desestimada la petición de subvención si no recayera resolución expresa, a los efectos de lo establecido en el artículo 25.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.


La resolución que se dicte pone fin a la vía administrativa, y contra la misma se podrá interponer en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de la notificación, Recurso Contencioso-Administrativo ante el juzgado de lo contencioso-administrativo.

No obstante, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, cabrá interponer en el plazo de un mes recurso de reposición ante el mismo órgano que dictó la resolución.

La resolución se publicará en la web municipal www.durango.eus y, en su caso, en la Base de Datos Nacional de Subvenciones, surtiendo esta publicación los efectos de la notificación.

Transcurrido el plazo establecido en el apartado anterior sin haber notificado o publicado la resolución, las entidades interesadas podrán entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

Las reclamaciones de las entidades colaboradoras se atenderán en los plazos establecidos.



14. Atxikitako entitate laguntzaileen betebeharrak

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 15. artikuluan eta Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako betebeharez gain, atxikitako entitateek honako betebeharrak hauek ere izango dituzte:

Kanpainari atxikitako saltokiek bost urtez gorde beharko dituzte bonuen erabilera justifikatzen duten tiketak edo fakturak.

Konpromisoa hartzea Durangoko Udalak banatzen dituen publizitate-materialak jaso eta establezimenduan ikusteko moduko lekuan jartzeko.

Durangoko Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketak onartzea, bai eta kontrol-organo eskudunek --Nazionalak zein Europar Batasunekoak -- egin dezaketen egiaztapen eta kontrol finantzarioko beste edozein jarduketa ere, eta jarduketa horietan eskatzen zaion informazio guztia ematea.

15. Bateragarritasuna

Ematen den diru-laguntzaren zenbatekoak ezin izango du, inola ere, diruz lagundutako erosketaren kostua gainditu, ez bakarka, ez beste administrazio publiko batzuen edo estatuko nahiz nazioarteko erakunde publiko edo pribatuen dirulaguntza, laguntza eta gainerako diru-sarrerekin batera.

16. Arau-hausteak eta zehapenak

Durangoko Udalaren dirulaguntzak emateko araubidea arautzen duen Ordenantza Orokorraren 18. artikulua xedatutakoa bete

14. Obligaciones de las entidades colaboradoras adheridas

Son obligaciones de las entidades adheridas, además de las señaladas para las entidades colaboradoras en el art. 15 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, así como en el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley, las que se señalan a continuación:

Los comercios adheridos a la campaña tendrán la obligación de conservar, durante cinco años, los tickets o facturas que justifican el uso de los bonos.

Comprometerse a la recepción y colocación de los materiales publicitarios que reparta el Ayuntamiento de Durango en un lugar visible del establecimiento.


Someterse a las actuaciones de comprobación, a efectuar por el Ayuntamiento de Durango, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto nacionales como comunitarios, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

15. Compatibilidad

El importe de la subvención que se conceda en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas y demás ingresos de otras Administraciones Públicas o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, superen el costo de la compra subvencionada.

16. Infracciones y sanciones

Se estará a lo dispuesto en el art. 18 de la Ordenanza reguladora del régimen de concesión de subvenciones del



beharko da.

17. Araubide juridikoa

Oinarri hauetan xedatutakoaz gain, deialdi honek honako araudi hauek ezarritakoa bete beharko du: Durangoko Udalaren dirulaguntzak emateko araubidea arautzen duen Ordenantza Orokorra, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, aipatutako legearen erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, deialdi bakoitzaren unean indarrean dagoen aurrekontua betearazteko araua eta aplikagarri den beste edozein araudi.

KONTUAN IZANDA

Aipatutako araudia bat datorrela Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzarekin.

Aipatutako araudia bat datorrela azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak ezartzen duenarekin.

Aipatutako araudia bat datorrela, Aurrekontua betearazteko udal oinarriek ezartzen dutenarekin.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuen 10/2003 Foru Aginduak ezartzen duenarekin bat etorritik, zeinaren bidez, eskumenak erregulatzen baitira gastu-fase ezberdinei dagokienez.

Ikusirik badela aurrekonturik aipatutako dirulaguntza-programa aurrera eramateko, eta aipatutako 10/2003 Foru Aginduaren IV idazpuruak zehaztu duen kontu-

Ayuntamiento de Durango.

17. Régimen jurídico

Además de a lo dispuesto en las presentes bases, la presente convocatoria se supeditará a lo establecido en la Ordenanza reguladora del régimen de concesión de subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Durango, así como en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la referida ley, en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en la Norma de ejecución presupuestaria que se encuentre vigente en el momento de cada convocatoria y demás normativa que resulte de aplicación.

CONSIDERANDO


Que la mencionada normativa está de acuerdo con lo preceptuado en la Ordenanza Reguladora de Subvenciones y Ayudas del Ayuntamiento de Durango.

Que la mencionada normativa está de acuerdo con lo preceptuado en LA Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Que la mencionada normativa está de acuerdo con lo preceptuado en la Norma Municipal de Ejecución presupuestaria.

Que la mencionada normativa está de acuerdo con lo indicado en el artículo 41 de la Norma Foral 10/2003 Presupuestaria de Entidades locales del Territorio Histórico de Bizkaia, por el que se regula la competencias en las diferentes fases del gasto.

Que existe consignación presupuestaria para llevar adelante el programa de subvenciones descrito y habiéndose realizado el preceptivo control interventor descrito en el Título IV de la mencionada



hartzailetzakegin beharreko kontrola egin ostean.

Sara Oceja Salazar andreak, Lurralde-arloko zinegotzi delegatuak, alkateak 2023ko ekainaren 29ko Dekretuaren bidez (2023ko uztailaren 19ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 139. zenbakian) erabakitako eskuordetzeak betez, honako hau erabaki du:

ERABAKI DU

Aipatutako deialdiaren oinarrien zuzenketak onartzea.

Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 8.2 artikulua eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 9.3 artikulua ezartzen dutenarekin bat etorritz.

Gastua onartzea A fasean, 10/2003 Foru Aginduaren 41.1 artikulua eta, Udaleko Aurrekontua Betearazteko Oinarrien 16. artikuluan ezartzen dutenaren babesean eta, beti ere, aintzat hartuta dirulaguntza programaren zenbatekoa eta aurrekontu partida.

Alkateorde delegatuak agindu eta izenpetzen du, eta nik, Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek, egiaztatu egiten dut.

Norma Foral 10/2003.

Doña Sara Oceja Salazar, Concejala delegada del área de Territorio, en virtud de las delegaciones acordadas por la Alcaldesa mediante decreto de fecha 29 de junio de 2023, publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 139, de 19 de julio de 2023, ha dispuesto lo siguiente:

HA RESUELTO

Aprobar las correcciones de las Bases de la referida Convocatoria.

Ordenar la publicación de la misma en el Boletín Oficial de Bizkaia, de acuerdo con lo indicado en los artículos 8.2 de la Ordenanza Reguladora de Subvenciones y Ayudas del Ayuntamiento de Durango y 9.3 de la Ley 38/2003 de la Ley General de Subvenciones.

Autorizar el gasto en fase A al amparo de lo indicado en el artículo 41.1 de la Norma Foral 10/2003 y en el Artículo 16 de la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria de este Ayuntamiento, por el importe y en la partida que se indica en el texto del programa de subvención.

Lo manda y firma la Teniente Alcalde delegada, de todo lo cual yo, Secretaria General de la Corporación, doy fe.